

ZABALKETA 02 KOADERNOA :

HONDAMENDI NATURALEN ARRISKUAK MURRIZTEA FILIPINETAN



2013an Bohol uhartean izan ziren hondamendi naturalek (7,2 graduko lurrikara Richter eskalan eta Haiyan supertifoia) milaka hildako eragin, landa eremuetako etxeak bota eta uharteko eraikinen % 25 suntsitu zituzten.

Egoera lasgarri horretan, **Zabalketa Elkartea** eta **Philippine Center for Civic Education and Democracy (PCCED)** Filipinetako haren tokiko bazkidea lanean hasi ziren, bi helbururekin: herritarren premiazko beharrei erantzutea eta, etorkizuneko hondamendi naturalei begira, haien gaitasuna indartzea.

LARRIALDIKO LAGUNTZA

Lehenengo hilabeteetan, Filipinetako armada eta laguntza humanitarioko nazioarteko agentziak arduratu ziren kanpaina ospitaleetan zaurituak artatzeaz, bide azpiegitura berreraikitzeaz eta oinarrizko ur eta elektrizitate hornidurak berrezartzeaz. GGKE ugarik (hala nola PCCED), tokiko erakundeekin batera eta Nazio Batuek

koordinatuta, laguntza humanitarioko programak jarri zituzten martxan, hainbat alorretan (**elikadura, osasuna, etxebizitza, hezkuntza, bizitzeko baliabideak**, etab.), ia guztia galdu zuten familiei laguntzeko. Oso garrantzitsua zen azkar aritzea eta baliabideak eraginkorki aprobetxatzea. Zabalketak eta PCCEDk komenigarritzat jo zuten lehentasunez laguntzea 3 urtetik beherako seme-alabak zituzten familiei, haurdun zeuden emakumeei, adineko pertsonen, mugikortasun arazoak zituztenei edo diru sarrera gabekoei.



Barazki hazien eta fruta landareen banaketa

Familiek bizileku duin bat izan zezaten, oinarritzko eraikuntza materialak eman zitzaizkien: hormigoia, egurra eta kanabera txirikordatua. 5-6 laguneko taldeetan antolatuak eta eraikuntza teknikari baten laguntzaz, etxeak berreraiki zituzten banan-banan. Gainera, etxe bakoitzaren ondoan, komun bat atondu zuten, gutxieneko higie-ne eta pribatutasun baldintzak betez, inolako ingurumen inpakturik eragingo ez zuena lurpeko urak kutsatzeagatik.

Arazo komunitarioei heltzeko filipinarren elkarlan espiritua ("bayanihan" izenekoa) funtsezkoa izan zen **etxeak eta behin-behineko ikasgelak**, berreraikitze-ko, eta eskolei berrekin ahal izan zieten hilabete gutxiren buruan horri esker.

FORMAKUNTZA ETA ANTOLAKUNTZA

Etorkizunean gerta litezkeen hondamendi naturalen arriskuak eta inpaktuak minimizatzeko aldera, 2015az geroztik **hondamendi arriskuak kudeatzeari eta murrizteari buruzko formakuntza ikastaroak** antolatu dira, **udal agintarientzat, barangayetako buruontzat** eta gizarte zibileko hainbat sektoretako **liderrentzat** (nekazariak, garraioliariak, arrantzaleak, emakumeen elkarteak, talde erlijiosoak, etab.).

Alde batetik, aztergai izan dira giza jardueren ingurune naturalean dituzten eraginak, klima aldaketa eta aldaketa horrek hondamendi naturalekin duen lotura. Bestetik, **mehatxu motei** erreparatu zaie, eta barangay bakoitzean dituzten **arriskuei** (uholdeak, lurrikarak, tifoia, lur irristatzeak, etab.). Ondorioz, denek barneratu dute estrategiak eta egokitze neurriak martxan jartzearen premia, egungo biztanleriaren eta etorkizuneko belaunaldien osasuna eta bizi baliabideak babesteko. Formakuntzari esker, halaber, hobeto ulertu dute **hondamendi arriskuak kudeatzeko eta murrizteko lege nazionala**, eta

tokiko aurrekontuen baliabideak bideratu dituzte arriskuak modu eraginkorrago batean murriztera.

Horrez gainera, barangay bakoitzean **Hondamendi Arriskuak Kudeatzeko Batzorde** bat sortu da. Barangayeko kapitainak gizarte liderrek antolatutako lantaldeak koordinatzen ditu, hondamendietan eginkizun espezifikoek ardura daitezen: garraioa, ebakuazioa, etab.

EBAKUAZIO ZENTROAK

Zabalketa eta PCCED elkarlanean aritu dira ere udal gobernuarekin eta barangayekin **eraikin publikoak** konpontzen eta egokitzen, **ebakuazio zentro gisa** erabiltzeko, babesleku seguru eta hurbil bat izateko larrialdi egoeretan. Adibidez, barangayeko erabilera anitzeko aretoa, osasun postua, eskola edo kirol pista estalia.

Zentroak **egokitzean**, aintzat hartu da **genero ikuspegia**, baita barangayeko beste kolektibo zaurgarri batzuen behar espezifikoak ere. Zehazki, elementu hauek erantsi zaizkio zentro bakoitzari: teilatuko ura biltzeko tanga, ur hornidura bermatzeko; konketa eta komun seguruak eta bereiziak gizonentzat eta emakumeentzat; irisgarritasun arrapalak; barruko eta kanpoko argiak; edoskitzeko eta jario aurreko arretarako gune espezifikoak; eta hondakinak gaika biltzeko edukiontziak.

Gainera, ebakuazio zentroetako bizikidetzak bultzatzeko, barangayeko batzarrak **funtzionamendu arau** batzuk adostu ditu, erlijio desberdinen ohiturak eta praktikak errespetatzen saiatuz. Arau horien artean, besteak beste, otorduen eta atsedenaldien ordutegiak daude, zer eremu espezifiko erabiliko diren pertsonen erregistrarako, otorduak prestatzeko, biltegi gisa, etab.



ARRISKUAK KUDEATZEKO PLANAK

Barangay bakoitzak arriskuak kudeatzeko eta murrizteko plan bat egin du. Plan horrek zehazten ditu **datozen 5 urteetan** hobeto prestatuta egoteko eta babes baliabide material egokiak izateko **egin behar diren jarduerak**. Planak **tailerretan** landu dira eta hainbat **biztanleria taldetako pertsonen parte hartu** dute (gizonak, emakumeak, adineko pertsonak, etab.), talde bakoitzaren premiak kontuan hartzen direla bermatzeko.

Planen jarduerak hobeto definitzeko, barangay bakoitzaren



diagnostikoa landu eta **arrisku mapak** egin dira. Mapa horietan, eremu sentikorrenak eta arrisku potentzialak markatzen dira, zona guztiek ez baitute lurrikarak, tifoia edo lur irristatzeak nozitzeko probabilitate bera.

Tokiko **ingurune naturalaren ezaugarriak** ere definitu dira eta **ekosistemek ematen dizkieten ondasunak eta zerbitzuak** identifikatu dituzte. Horiek babestu egin behar dira, bizitzarako funtsezkoak direlako; izan ere, aukera ematen dute ura, egurra, polinizazioa, uraren arazketa naturala, mahukak kostaldeko fenomenoetatik babestea, etab.

Jarduerak planifikatzean, garrantzitsua da kontuan hartzea premiak larrialdiaren **aurretik, bitartean eta ondoren**, eta barangayak eskura dituen baliabideei dagokien aurrekontua zehaztea premia horientzat. Adibidez, erreskate materialak erostez gainera, erabaki da ebakuazio bide seguruenak zein diren adierazten duten seinaleak erosi eta ipintzea.

ERRESKATERAKO ETA LEHEN LAGUNTZARAKO BALIABIDEAK

Erreskate lana eta osasun arreta hobetzeko, ekipamendua eta material sanitarioa banatu da landa eremuko barangayetako osasun zentroetan. Zentroek era koordinatuan funtzionatuko dute, hobeto administratuko dira eta materiala eskuratzeko modu hobean egongo dira hura agortzen zaienean. Doppler ekiak erosi dira, ekografiak egiteko haurdun dauden emakumeei, haurtxoentzako baskulak, glukometroak, presio arteriala neurtzeko gailuak eta gurpil aulkiak. **Oinarrizko osasun materialaren** kit-ak ere eskuratu dira, tresneriaz (estetoskopioa, inhalagailua, termometroak, guraizeak, pintzak, etab.), sendaketa materialez eta erabilera orokorreko sendagaiez (analgesikoak, hantura-kontrakoak, bitaminak, antibiotikoak, etab.) osatuak.

Larrialdietan, funtsezkoa da lehenbailehen artatzea zaurituak. Horregatik, barangayetako gazteek **erreskate**



eta lehen laguntza ikastaroak egin dituzte. Formakuntza praktikoa horretan, larrialdi egoerak identifikatzen ikasi dute, oinarrizko erreskate ekipamendua erabiltzen (sorgailu elektrikoa, eskailera, linternak, irrati eramangarria, motozerra, kaskoak, erreskate ohatilak eta lepoko ortopedikoak), zaurituen garraio segurua, bihotz-biriketako bizkortzearen teknika, hemorragien tratamendua, traumatismoak, erredurak, etab.

Gainera, Loon udalerriko kostaldeko barangayetan, **banka-anbulantziak** eraiki dituzte, itsasoan jendea erreskatatzeko eta zaurituak Tagbilaran hirira azkar eramateko.



GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK



Zabalketa eta PCCED Bohol uhartean garatzen ari diren proiektuak laguntza handikoak izan dira Garapen Jasangarriko Helburuak betetzeari begira. Zehazki:

GJH 3 eta GJH 5: osasun eta ebakuazio zentroak berreraikiz eta hornituz, hobeto erantzun zaien osasun larrialdiei, murriztu egingo da gaixotasunen eragina eta indartu egingo da landa eremuko barangayetako herritarren ongizatea, arreta berezia jarri haur eta emakumeengan.

GJH 6: ebakuazio zentroetan, ur hornidura berraztertuta dago, eta komunek higiegi eta pribatutasun baldintza egokiak betetzen dituzte, ur iturriak kutsatzeko arriskurik gabe.

GJH 9: ebakuazio eta osasun zentroak azpiegitura fidagarriak, jasangarriak eta irisgarriak dira, eta

egokitu daude pertsona guztien beharretara, adina, sexua, erlijioa edo dibertsitate funtzionala gorabehera.

GJH 11: tokiko agintariak lanean ari dira barangayak komunitate jasangarriak izan daitezen, jendea ingurune osasungarri eta seguruan bizi dadin eta oinarriko zerbitzu guztiak eskura izan ditzan.

GJH 13: Boholeko biztanleriak ezagutzak eta oinarriko bitartekoak eskuratu ditu klimarekin lotutako hondamendi naturalei erantzuteko; hau da, bere erresilientzia eta klima aldaketarako egokitzapena indartu du.

GJH 16: agintariak trebatuz, erakundeak indartzen ari dira eraginkoragoak izateko eta biztanleria talde guztien beharrei erantzun dieten erabaki inklusiboagoak eta parte hartzaileagoak hartzeko.



Agintariak eta gizarte liderrek batera lan egiten dute barangayetako bizi baldintzak hobetzeko

“Pobreziaren aurkako borrokan ingurumenaren kudeaketa esperientzien bitartez Gipuzkoako gizarte eraldatzeko. 2. Fasea” (GFA 2019 ERAL 016/01) proiektuaren hezkuntza materiala. Zabalketa Elkartek eta Tau Fundazioak koordinatutako proiektua, Gipuzkoako Foru Aldundiak kofinantzatuta “Pobreziaren Aurkako Ingurumen Iraunkortasunaren Nazioarteko Sarearen” elkarlanaren esparruan.

Agintariak: Zabalketa Elkartea

Argazkiak: Zabalketa eta Philippine Center for Civic Education and Democracy

Diseinua eta maketazioa: ad hoc Komunikazioa eta Marketina D.L. SS-691-2019

Zabalketaren webguneetan eskuragarri gatzeleraz eta euskaraz.
www.zabalketa.org

